

BIOAGRADABLE

Colegio El Regato Ikastetxea



Irati Díez, Joseba Díez, Noelia Gorostiza, Yaiza
Pareja eta Aiala Villariego
14-1-2019

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure enpresa Bioegradable du izena, bio-produktuak egiten ditugu, gure planetaren oraina eta etorkizuna zaintzeko. Guztiok badakigu berotze globalak eta kontaminazioak sortutako eragozpenak askotarikoak izan direla, eta egoera gero eta okerragoa bihurtzen ari dela, ondorioz, guk pentsatu dugu, zer egin dezakegu egoera hau aldatzeko eta gure gizartea kontzientziatzeko? Horrela sortu zen Bioegradable proiektua.

Esan dugunez, gure enpresak bio-produktuak banatzen bitartekari moduan eta denda batean saltzeaz arduratzen da. Gure helburu nagusia, plastikoaren kontsumoa murriztea da, oso kaltegarria delako gure ingurumenerako eta jendea ahalik eta gutxiago erabiltzea lortu nahi dugulako.

Bitartekari moduan, hainbat enprekin kontaktuan jarri gara. Konkrétuki, hiru enpresa hauekin, **Solubag** poltsak hidrosolbagarri egiten dituen enpresa, **Grupo Billingham**, oihalezko poltsak egiten dituenak eta azkenik, **Monouso**, edalontzi berezi batzuk eskainiko digun enpresak.

Gure bezeroen artean, supermerkatuak (edota beste banatzaileak) eta gure denda fisikoan (Gurutzetan kokatuta dagoena), zein online-dendan sartzen diren bezeroak izango dira. Bezeroei erakartzea lortuko dugu, bai publizitate on batekin, Irati arduratuko dena, bai diseinu (Yaiza arduratuko da) eta esaldi (Aiala arduratuko da) erakargarriekin.

Biogradable enpresa aurrera eramatea ezinezkoa izango lirateke bost partaideen rola bete ezean. Enpresa osatzen duen kide bakoitza, betebeharrak bat du, eta hauek dira:

- Yaiza: Diseinuaren arloan jokatzeko du, zehatzago marrazkietan.
- Aiala: Diseinuaren arloan jokatzeko du ere bai, zehatzago, idatzitako esaldietan.
- Irati: Elkarte harremanekin kontaktuan jartzen da.
- Noelia: Zuzendaritza eta kudeaketa lanak betetzen ditu, taldearen kide bakoitzak dagokion betebeharrak burutzeko.
- Joseba: Enpresaren kontabilitate osoa burutzen du.

Gainera gure bio-produktuak ez dira beste bio-produktu batzuk bezala, Aialak eta Yaizak sortuko duten diseinuari esker, lortuko dugu bezeroei erakartzea eta horrela, jendea ingurumenaz kontzientziatuta egotea lortuko dugu ere bai.